


BIZITEGI ERAIKINA
D MAILA

MATIA 52



Egilea eta data: Ramon Cortazar; 1922
(Ez dago jatorrizko proiektuaren planorik Udal Artxiboan)

Deskribapena

Mehelin arteko eraikina, behe oina eta jatorrizko bost goi oin dituen, azkena atzeraemana. 1922ko azaroan beste jasodura atzeraeman bat egiteko lizentzia eskatu eta lortu zen, eta uko egin zitzaion, artxiboan jasota dagoenez. Harlangaitz horma entokatuko fatxada behe oineko kareharrizko zokaloaren gainean. Fatxada konposizio simetrikoa, Erdiko ardatza puntu Erdiko arkuen bidez errematatutako bao bikoitzekin nabarmentzen duena. Zurezko begiratokiak ertzetako baoetan. Badago Cortazarren 1922ko urtarileko proiektu bat, oinplanoaren, sekzioaren eta bao modulazioaren neurrietan baino antzik ez duena.

Babes erregimena

1. Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.
2. Berariazko erregimena.
 - A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: ez.
 - B. Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: zokaloko harlandua.
 - C. Beste irizpide zehatz batzuk;
 - * Begiratokiaren tratamendua ordenantza orokor horietan ezarritako irizpideetara egokituko da.
 - * Erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzearekin loturiko gainerako irizpideak, hala badagokio, behe oineko fatxadaren konfigurazio bateratuarekin loturikoak barne.